

## LIZENTZIEN BIDERAKETA-EKITALDI ADMINISTRATIBOA EGITEKO PROZEDURA

Gaur egun, Gipuzkoako 12-14 federaziok, ez dute urtarrileko 31 data duen 2006/16 dekretuak arautako lizentzia federatuei buruzko legea betetzen. Federazio hauen joera aldatzea garrantzitsua deritzogu legez beraiei dagokien lizentzia bideraketak egin ahal ditzaten.

AFEDEGIk, federazio hauei nahiz giza-baliabide eta ekonomiko gutxi duten federazioek euren lizentzien bideraketa-ekitaldi administratiboa egiteko laguntza eskaintzen du. Jarraituko den prozedura honakoa da:

Lurralde federazioak izapideei buruzko zehaztapenak euskal federazioarekin adostu eta finkatutakoan lurralde federazio interesatuak lizentzia berritzeko zein lehen aldiz eskatzeko inprimaki normalizatuaren kopia eta klub eta federatuei bidalitako jakinarazpenen kopiak helaraziko dizkio AFEDEGIri

AFEDEGIk ez du dokumentaziorik balioztatuko, bere ardura dokumentazioa jasotzearena soilik izango da, horretarako hiru bide ahalbidetuko dituelarik:

- Posta elektronikoa: [lizentziak@afedegi.com](mailto:lizentziak@afedegi.com)
- Faxe: 943111998
- Eskura : Anoeta pasealekua 5, 20014 Donostia

AFEDEGIk ez du lizentziarik bideratuko. AFEDEGIren lana federatuaren datuak lurralde federazioak esandako lizentzia programan sartu eta honek balioztatu ostean euskal federazioari ala aseguru etxeari bidaltzeko prest duela jakinarazitakoan amaituko da.

Azkenik, urtarrilaren 31ko 2006/16 Dekretuak ezartzen duenari eutsiz, AFEDEGIk ez du sekula lizentzien ordain-kopurua jasoko ezta kitatuko ere, gaitasun hori legez lurralde federazioarena soilik baita.

Sinatuko den zerbitzu kontratua bi aldeetakoren batek berariaz uko egin arte indarrean izango da, betiere ordainketak aurrez ezarritako epeetan gauzatzen badira.

Kontratuaren zenbatekoa urtero berrikusia izango da, federazioaren lizentzien ezaugarri eta kopurura moldatuz. Eskaintako zerbitzuen tarifak aurrez jakinarazi beharko ditu AFEDEGIk, eta zerbeit fakturatu behar izanez gero agiriak abenduako data izango du.

Jasotako datu pertsonalak, zehaztutako mantenu eta kudeaketa zerbitzuak ematearren, Federazioen Elkartek sortutako fitxategi automatizatueta sartuko dira, eta Norberaren Datuak Babesteko 15/1999 Lege Organikoaren arabera baliatuko dira.